

Ingurune naturala, baserria eta paisaia aztertu ditu Udaltalde 21 Ernioaldeak ▶ 5



Harpidedunei banatua ▶ Asteazkena ▶ 2006-06-21 ▶ IV. urtea ▶ 917. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

XX. Uxola Sariak banatu dizkiete 24 idazle gazteri

TOLOSA ▶ Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen hizlauak eta olerkiak aukeratu dituzte Agustin Amiano, Bittor Madina, Karlos Linazasoro eta Juan Kruz Igerabide epaimahaikideek ▶ 2



Saria jaso zuten idazleak eta erakundeetako ordezkariak, atzo, ekitaldiaren amaieran. N. LATABURU

GORKA ARANDIA ▶ HITZA TXAPELKETAKO DELEGATUA

«lazko maila beretsua egon da aurtengo txapelketan»

Finalen atarian mintzatu da epaile lanetan aritzen den albizurtarra ▶ 6



N. URBIZU

ANOETA ▶

Aisialdi gune berria egiten ari dira

Ur-biltegi zaharreen joango da; «espazioa berreskuratzea» da Udalaren asmoa ▶ 4

LEITZA ▶



J. ASTIBIA

Aralar Musika Eskolako emanaldia

Leitzako eta Aresoko 80 bat ikasle aritu dira taula gainean ▶ 7

ARESO ▶

9 punturen jabe dira Aresoko tiralariak

Euskal Herriko Txapelketan ari dira, 640 kilokoan ▶ 7

LITERATURA ▶

Hitzak lantzearen artea

Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 24 gaztetxok jaso zituzten atzo XX. Uxola Sariak, haur liburutegian, hizlauan eta poesian

NOELIA LATABURU

Hogei urte betetzen dira aurtengoan Tolosako seme Estanislao Urruzola Vitoria Uxolari omen egiteko haren izena duen literatur lehiaketa abian jarri zutela. Harrezkero, makina bat gaztetxok idazteko duten abilezia agerian utzi dute, hizlauan zein poesian. Hala, literaturara hurbiltzeko giltza



Igerabidek eta bere alabak, Oihane, emanaldia eskaini zuten. N. L.

izan da askorentzat Uxola sarietara euren lanak bidaltzea.

Bada, atzo burutu zuten sarien banaketa Errota haur liburutegian: guztira 24 gaztetxoen lanak aukeratu zituzten, hizlauan eta poesian, Agustín Amiano, Bittor Madina, Karlos Linazasoro eta Juan Kruz Igerabide epaimahaiek. Lau mailatan banatu dituzte ikasleak aurtengoan, iaz baino maila

bat gehiago; Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak, 5. eta 6. mailak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak eta 4. eta 5. mailakoak, hain zuzen ere. Eskualdeko ikastetxe askok hartu dute parte Uxola sarietan eta Alegiako, Anoetako, Ibarra, Berrobiko, Amezketa eta Tolosako ikastetxe ezberdinetako ikasleek jaso zituzten Udaleko Euskara eta Hezkuntza batzordeko eta Kutxako Gizarte Ekintzako arduradunek eskainitako sari hauek.

Sariak banatu bitartean, Juan Kruz Igerabide poetak eta bere alaba Oihane Igerabide harpa-joleak bertaratuen txalo beroak irabazi zituen emanaldi «hunkigarria» eskaini zuten.

SARITUAK ▶

GORKA ARROYO

SAMANIEGO HERRI IKASTETXEA



Maila. Hizlaura
Lehen Hezkuntza
3 eta 4.
Lana. *Ur tanta bat*
Saria. Lehena.

JON GALLEGO

SAMANIEGO HERRI IKASTETXEA



Maila. Olerkia,
LH 3 eta 4.
Idazlana. *Urtaro*
eroak.
Saria. Hirugarrena.

IÑAKI ARTOLA

ALEGIKO SAN JUAN IKASTETXEA



Maila. Olerkia,
Lehen Hezkuntza
5 eta 6.
Idazlana. *Artalde*
Saria. Bigarrena.

MAIALEN EIZMENDI

LASKORAIN IKASTOLA



Maila. Olerkia,
DBH 1 eta 2.
Aurkeztutako
lana. *Esperantza.*
Saria. Lehena.

AINHOA GALARRAGA

IBARRAKO UZTURPE IKASTOLA



Maila. Hizlaura,
DBH 3 eta 4.
Lana. *Zorte ona*
zekarren katu.
Saria. Hirugarrena.

OLATZ GALARZA

AMEZKETAKO ZUMADI ESKOLA



Maila. Hizlaura,
Lehen Hezkuntza
3 eta 4.
Lana. *Azeritxo.*
Saria. Bigarrena.

NEREA UGARTEMENDIA

HIRUKIDE JESUITINAK



Maila. Hizlaura,
LH 5 eta 6.
Lana. *Itsusi*
mobilaren abenturak
Saria. Lehena.

MADDI DORRONSORO

BERROBIK SAN ANDRES ESKOLA



Maila. Olerkia,
LH 5 eta 6.
Idazlana. *Liburu*
ireki.
Saria. Hirugarrena.

NEREA KARRERA

LASKORAIN IKASTOLA



Maila. Olerkia,
DBH 1 eta 2.
Aurkeztutako
lana. *Zure irudia.*
Saria. Bigarrena.

CLARA URTEAGA

LASKORAIN IKASTOLA



Maila. Olerkia,
DBH 3 eta 4.
Lana. *Hitz gazi-*
gozok.
Saria. Lehena.

GORKA SORARRAIN

SAMANIEGO HERRI IKASTETXEA



Maila. Hizlaura,
LH 3 eta 4.
Lana. *Felix*
arkakusoa
Saria. Hirugarrena.

IÑIGO AZKUE

HIRUKIDE JESUITINAK



Maila. Hizlaura.
Lana. *Peluxe*
zko hartz txiki baten
istorioa
Saria. Bigarrena.

AINARA OTAMENDI

IBARRAKO UZTURPE IKASTOLA



Maila. Hizlaura,
DBH 1 eta 2.
Aurkeztutako
lana. *Haitz.*
Saria. Lehena.

EÑAUT GARMENDIA

ORIXE INSTITUTUA



Maila. Olerkia,
DBH 1 eta 2.
Aurkeztutako
lana. *Bukaera.*
Saria. Hirugarrena.

IRATI IRIGOYEN

HIRUKIDE ESKOLAPIOAK



Maila. Olerkia,
DBH 3 eta 4.
Lana. *Gau bateko*
zorarena.
Saria. Bigarrena.

OLATZ EIZMENDI

SAMANIEGO HERRI IKASTETXEA



Maila. Olerkia,
LH 3 eta 4.
Lana. *Bost*
aingeruak.
Saria. Lehena.

IRENE LOPEZ

HIRUKIDE JESUITINAK



Maila. Hizlaura,
LH 5 eta 6.
Lana. *Lore eta*
bizikleta magikoa.
Saria. Hirugarrena.

IRATI ODRIEZOLA

LASKORAIN IKASTOLA



Maila. Hizlaura,
DBH 1 eta 2.
Aurkeztutako
lana. *Thule*
Saria. Bigarrena.

ALHOA KARRERA

IBARRAKO UZTURPE IKASTOLA



Maila. Hizlaura,
DBH 3 eta 4.
Lana. *Sustrai*
porlanatik aske.
Saria. Lehena.

MAIALEN MUÑOZ

HIRUKIDE ESKOLAPIOAK



Maila. Olerkia,
DBH 3 eta 4.
Lana. *Ezintasunean*
sinistu nahi dut...
Saria. Hirugarrena.

AMAIA JUARISTI

SAMANIEGO HERRI IKASTETXEA



Maila. Olerkia,
LH 3 eta 4.
Idazlana.
Urtaroak.
Saria. Bigarrena.

MIRARI MARTIN

SAMANIEGO HERRI IKASTETXEA



Maila. Olerkia,
Lehen Hezkuntza
5 eta 6.
Lana. *Aita gogoan.*
Saria. Lehena.

IRATI LARRAÑAGA

HIRUKIDE-ESKOLAPIOAK



Maila. Hizlaura,
DBH 1 eta 2.
Lana. *Lau paretan*
artean.
Saria. Hirugarrena.

OLATZ PEÑAGARIKANO

ANOETAKO HERRI IKASTOLA



Maila. Hizlaura,
DBH 3 eta 4.
Lana. *Hegazkineko*
idazlanak.
Saria. Bigarrena.


**TOLOSALDEKO
HITZA.INFO**

▶ Tolosako San Joan jaietako egitaraua dagoeneko ikusgai duzue gure webgunean!



Gaztea bazara eta zure herri historia ezagutu, ingurumenaz gozatu eta abenturazko udan murgildu nahi baduzu:

Uzturreko gazteluaren mistrioa, gazte auzolandegia

Txandak: uztailak 3-14 / 17-28 • Adina: 15-20 urte
Astegunetan goizetan arkeologia jarduerara eta eguerdian bazkaria
Prezioa: 125 euro • Plaza mugatuak

Abuztuan Edurne Pasabanekin aste beteko egonaldiaz gozatu eta Pirinioetan, natur parkeak ezagutz, mendi igoerak eta abentura kiroltan parte hartuz.

Informazioa: Ingurumen saila Tolosako Udala / www.kutxasocial.net / Aranzad 943 46 61 42





IRITZIA ▶ MIGUEL ZEBERIO (MUSIKARIA)

Garaileen lehia



Udazkeneko ospakizunak udaberrian ezohiko egiten zaizkigu, pentsa bestela zer lizatekeen ostegun gizen bat uda betean. Hala ere, ekitaldiak jende andana bilduarazi zuten, merezi ere merezi zuelako. Arratsalde bakarrekero izanda ere, bazter askotako entzulegoa zen nabarmen eta horien artean kultur eta politika ordezkari ugari. Behar bada alderatuz gero, bertako gaztediaren presentzia zen urriena eta pentsatzen jartzeko gaia da hau. Alde artistikoari lotuko bagatzaizkio, berriz, neurri-neurriko saioa iruditu zitzaidan, luzeran zein mamian: ikuspuntu eta aldaera aberatsez osatua.

Atzekoz aurrera lehendabizikoak Tolosako jazko lehiaketan garaipena lortu-tako Schola Cantorum norvegiarrak izan ziren. Aldi hartan erakutsi zuten mailarekiko oso bestelakoa erakutsi zuten, honekin nabarmetzen da giza jardueraren maila baldintzen arauera aldakorra izan daitekeela. Egitarauaren propietate teknikoak guztiz aberatsak eta lehiakorrak izanik, nabariari jarri zituzten era askotako gabeziak, eta hone-luz urte erdi aurrerago erakutsitako dir-dira itzalpean galdu zen.

Hungariar neskatuen talde politak naturaltasunez gozarazi gintuen. Nire irudikotz, arratsaldeko lehiakortasuna-ren ildotik at behar lukete, bestelako balio eta arrakasta duinen adierazgarri. Dénes Stzbó zuzendari jaunak aurretik ere gure lehiaketan erakutsi duen jakin-duria pedagogikoen arauerako egitarauaren bidez azpimarratu zuen eten-

gabeko formakuntza eskatzen duen era honetako proiektuen traszendentzia. Herri musikari lotutako doinuetan freskotasuna igorri zuten, eta Franz Bieblen *Ave Maria*-rekin, berriz, otoitz zerutiarra, duo xume eta ongi josien xalotasuna. Saioko talderik irmoena ere Hugaria bertakoa: Victoria. Adam Cser zuzendari gazteak, gaztetasunari dagokion bapatekotasunez edo, tarte bat edo beste-an taldea menperakaitz utzi bazuen ere, askatasun horretan oso bestelako pasarte gozoak lortzeko gai izan zen. Berpizkunde garaiko obretan testuak duen musikarekiko lotura, deklamazioaren erritmika rubato konplexuak liluratu ninduten. Rachmaninoven *Ave Maria* intimoa aurrekoaren osagarri gutuzi izan zen. Zuzendari beraren edo Schnit-ke konposagilearen obrak, momentu zalapartatsu samarrak alboratuz, gus-tura entzun nituen ere, gizon-emakumez

osatutako soinu tresna hari zerion gar-rari esker.

Garaipena jaso zuen Uthako talde Estatu Batuarrek ireki zuen lehiaketa. Nabarmena zen abesbatzaren maila tekniko landua, aldiz eta goi mailari eutsiz, emozio edo zirrara kitzikatzeke garaian ez zitzaizkidan hain oparoak gertatu. Orokorrean, beren jardunak behetik gorako ibilbidea erakutsi zuten. Egia esan, ez baita erraza ekitaldiaren hasierako oztasuna haustea eta entzulegoa bat-batean berotzea; aurreneko abestieta-ko, dinamikari eta koloreari zegozkien kontraste mugatuak aberastuz joan ziren, goi maila estatubatuar azken bi obretan erdietsi zutelarik. Saria jasotze-rakoan, txapel-dunari dagokion neu-rrian eta jada presiopetik at, eskuratu-takoaren ohoredun zirela berretsi zigu-ten.

Honenbestez, udazkenari zain geldituko gara zaletuok, oraingoan bere beti-ko garai eta aretoan gure lehiaketak ohi-ko eran nola asetu eta harrituko gaituen zain!

IGERIKETA ▶

Tolosaldekoak bikain

IKTko igerilari alebinek eta infantilek oso emaitza onak lortu dituzte Euskal Herriko eta Gipuzkoako txapelketetan

ESTI EZEIZA

Ekainaren 3an Euskal Herriko Eskolarteko Jokoak jokatu ziren Usabalen. 1993an jaiotako 150 igerilari aurkeztu ziren Hego Euskal Herriatik. Igerilari gazteak eta onak ikusi ahal izan ziren. Oso errelebo onak ikusi ziren 4x100 libre eta 4x100 estiloan.

Tolosatik sei igerilarik hartu zuten parte. Oso nabarmen aritu ziren Iñaki Carrera (100 metro bularrez), Eneka Muñagorri (200 m. bularrez) eta Jokin Otaegi (100 m. librean). Denak ere, banakoako probetan, Euskal



Tolosaldea IKTko igerilariak. HITZA

Herriko txapel-dun geratu ziren. Bestalde, ederki moldatu ziren eta txapelketa polita egin zuten Ainhoa Onsalok (200 m. bizkarrez), Iñigo Pradak (100 m. bizkarrez) eta David Rodriguezek (400 m. estiloan). Hauek ere domina eskuratzetik oso gertu egon ziren.

G-3 Gipuzkoako txapelketa

Bestalde, aurreko astean, Azpeitian adin bereko Tolosalde-ako zortzi igerilari ezin hobeto aritu ziren G-3 Gipuzkoako Txapelketan. Aurrez aipatuta-ko igerilari-iez gain, Alaia Gorostidi eta Iñaki Miñoak hartu zuten parte. Ez zituzten oso marka onak lortu, eta ezin izan ziren Euskal Herriko Jokotara-ko sailkatu. Gainerakoan, mutilak 4x100 libre erreleboan irabazi zuten; Iñaki Muñoak hortzak estutu behar izan zituen amaieran, lehen postuari eutsi ahal izateko.

AZOKA ▶

Larunbateroko azoka ostiralean egingo da

Hilaren 24a San Joan eguna denez eta, beraz, Tolosan jai egiten delako, larunbateroko azoka hilaren 23an egingo da, hau da, etzi, ostiralean.

KULTURA ▶

Musika Eskolan izena emateko epea irekita dago

Hil honen 30a arte, goizez, 2006-2007 ikasturtean Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolan izena emateko epea zabaldu dute.

FUTBOLA ▶

Tolosa CFko infantilak bigarren

Denboraldi bikain baten ostean, Tolosa CFkoak bigarren geratu dira III. Eibarko Hiria infantil mailako torneoan. Finalerdietan Amorebieta taldea izan zuten arerio, eta urdinek penaltietan eskuratu zuten finalerako txartela. Azken partida honetan 3-1 galdu zuten C.D. Ermuaren aurka eta, beraz, ezin izan zuten garaipena etxeratu.



Tolosa CFko mutilak. HITZA

iragarki laburrak ▶



Alkiza. Familia bakarrerako txaleta, 4.000 m2ko lur eremuarekin, hiru

solairurekin, eta hauetako bakoitzak 120 m2 ditu.

Alkiza. Bi familientzako etxea eraikuntza lanetan, sotoa eta hiru solairurekin.

Andoain. 90m2ko etxebizitza eraberritua, sartzeko moduan, kanpoaldera eta eguzkitsua.

Andoain. Santa Kruz auzunea, 80m2ko bi etxebizitza erreformatuak, kanpoaldera, igogailuarekin, eta bista ederrekin.

Belautza. Bi familientzako etxebizitza, bi solairurekin eta 270m2ko lur eremuarekin.

Berastegi. Familia bakarrarentzako

txaleta, 3.500 m2ko lur eremuarekin.

Donostia. Antiguu, Eskolta Real, etxebizitza eraberritua, kanpoaldera. **Irura.** Laskibarreko zonaldea, hiru logelako etxebizitza, garajearekin, giltzak uztailearen emango dira.

Tolosa. Zumalakarregi. 150 m2ko etxebizitza, egoera ezin hobean, garajea aukeran.

Tolosa. Pablo Gorosabel, apartamentua, garajea hartzeko aukerarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel, 45m2ko lokal xarrianta, erakuslehi handiarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel, 50m2ko bulegoa.

Tolosa. Santa Maria plaza, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukualdea, bainugela eta komunak. Oso egoera onean, garaje bikoitzarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel, eraikuntza berriko azken apartamentua, 65 m2 erabilgarri.

Tolosa. Trinkete plaza, 3 logelako etxebizitza: egongela, sukualdea terrazarekin, bainugela, komunak eta garaje ibxia ditu.

Tolosa. Zabalarreta, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukualde,

terrazza, bainugela, komun, trasteleku eta garaje itxiarekin.

Tolosa. Belate pasealekuan, trasteleku berriak, argia, aire erazgailuak 9.480 euroatik.

Tolosa. Berdura plazan, merkataritza zentru erreformatua salgai, dena erakuslehi.

Tolosa. Usabalen, 350 m2ko pabilioa, alokairuan abuztutik aurrera. Bi zubi garabierekin, bulego, bainugela eta abarrek hornitua.

Errioxa. Etxe atxikiak, familia bakarrekoak eta etxebizitzak ditugu. Errioxako zonalde desberdinetan, Logroño eta Najeratik gertu.

ANOETA ▶ AZPIEGITURAK

Aisialdi gunea egiten ari dira ur-biltegi zaharraren lekuan

Espazioa «berreskuratzea» da Udalaren asmoa; txirrindulari baten forma hartuko dute bertan jarriko dituzten elementuek



Atsedelekuaren lanak aurrera doaz. Irudian, lanen egoera, atzo. I. GARCIA

ERREDAKZIOA

Aldaketa nabarmen bat izango du antzinako ur-biltegia kokatzen zen eremu guztiak, aisialdirako errekurtoez eta ekipamenduez hornituko den gune berde bat atontzen ari baita Udala lur-saila guztia berreskuratuz eta atonduz. Herritik hurbil eta ikuspegi ederra duen eremuak zuzeko mahaiak, eserlekuak, iturri bat, erretegia, haurrentzako jolas-tramankuluak, zuzeko tratamendua duten hesiak, bi lizar, landare trepalariak eta ekipamendu guztia konektatuko duen zuzeko tratamendua duen bidea izango ditu. Uda honetarako, bizilagun guztien gozamenerako eremu hori berreskuratuko dute.

Ekipamendu hau lotzen duen zuzeko bide honi esker

herriarekin harreman handia duen bizikleta eta txirrindulari baten irudia islatuko da. Koadroa eta urkilak zuzeko bidea osatuko lukete. Mahaiak eserlekuaren eta eskutokiaren lekuan joango lirarteke. Bi lizarrek gorpulen ardatzak ordezkatzeko litzateke. Haur jolasen eskailera batzuk ezarriko dituzte goiko eremura sarbidea izateko, eta bertan eserleku batzuk atonduko dituzte paisaiaz gozatzeko.

Udalak martxan jarritako ekintza honen helburua «antzinako ur-biltegia zegoen espazioa berreskuratzea eta fa-

milia eta bizilagun guztien aisialdirako eta gozamenerako gune berde bat lortzea izan da».

Pasa den urtean hasi ziren ekimena martxan jartzen, eta uda honetarako bukatuta egotea espero dute. Une honetan gune guztiaren egokitzapena eta prestaketa garatzen ari da Udala, uda honetarako bere diseinuagatik bereizgarria izango den aisialdirako espazioa izatea espero baitute. Naturan kokatua izango den espazio berde hau herri gunetik oso gertu izango da.

Foru Aldundia izango da elementu guztiak eskuratzeko eta ezartzeko aurrekontuari aurre egingo diona. Diru laguntza 14.900 eurokoa izango da, hain zuzen ere. Anoetako Udalak mantentze lanen ardura hartuko du.

VILLABONA ▶ ERREBOTEA

Ez dute finala jokatu Behar-Zanakoek

Ez zuten beraien eguna izan erreboteko jokalariek eta 13-2 galdu zuten finalerdia



Erreboteko jokalariek, artxiboko irudian. HITZA

IMANOL GARCIA

Behar-Zana elkarteko erreboteko taldeak ezin izan du Euskal Herriko Txapelketaren finale-rako sailkatu. Hazparneren aurka galdu zuen igandean finalerdia, 13-2ko emaitzarekin. «Pixka bat urduri hasi ginen», azaldu dio HITZARI Igor Alejo Behar-Zanako jokalariek. «Guk ez genuen asmatu ondo jokatzeko eta beraiei dena ondo atera zitzaie».

Partida zaila izango zela bazekiten, baina markagailua horrelako ezberdintasuna izango zenik ez. «Ligaxkan beraien etxean jokatu genuen eta 13-8 edo galdu genuen», dio Alejo. Villabonatik autobusa joan zen jokalariek animatzera eta asko eskertu zuten hori errebotelariak. Hurrengo partidak festetan jokatuko dituzte: herriko Sautio festetan San Inazio egunean jokatu dute partida.

ZIZURKIL ▶

San Joan suan dantzan egiteko entseguak

Zizurkilen San Joan suan dantza egiteko entseguak egingo dituzte bihar eta etzi Atxulondon, 18:00etatik 19:00etara. Etzi 20:00etan bilduko dira herritarrak Joxe Arregi Plazara, Elbarrenako su guztiak bisitatu eta bakoitzean dantza egiteko asmoz. 22:30ean bueltatuko dira Joxe Arregi plazara eta bertako sua piztuko dute. Adin guztietako herritarrak gonbidatuta daude parte hartzerako.

ANOETA ▶

San Joan abesbatzaren entsegua, etzi

San Joan abesbatza parte hartzeko deialdia egin dute antolatzaileek. Parte hartu nahi duen horientzat entsegua antolatu dute biharko. Anoetako Herri Ikastolan egingo da entsegu hori, 20:00etatik aurrera. Ohitura denez, San Joan sua piztu ondoren abesten du abesbatzak. Bertatik azaldukoaren arabera, abesbatza irekia da parte hartu nahi duen herriar ororentzat.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

- ▶ egunero 8 orrialdeko kalitateko egunkaria, euskaraz
- ▶ uneoro informazioa eskura www.tolosaldekohitza.info

KONTU KORRONTE bidez ordainduaz EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA

txartel berriarekin abantailak!



beherapenak agurretan, eskeletan eta iragarki laburretan besteak beste

egunean 0,18 zentimoren truke etxean

hasi da!
tropela.net
tourra, sarean, sariekin



laguntzaileak

AGENDA 21 ▶

Natura gordetzearen garrantziaz

Baserritarrak ekoizle nahiz kalitatezko paisaia baten zaindari bezala duen balorea barneratu behar da gizartean

ERREDAKZIOA

Udaltalde 21 Ernioaldeko zazpi udalerrietan (Aduna, Anoeta, Asteasu, Hernialde, Irura, Villabona eta Zizurkil) diagnostikorearen fasea amaitu dute. Bildutako informazioaren artean, gaitetako bat ingurune naturala, baserria eta paisaia izan da. Hona hemen ondorioak:

Ura.

▶ Zazpi udalerririk Ori ibaiaren arroan kokatuta daude. Arro honetan garapen industrial eta urbanistikoak uraren kalitatean izan duen eragina nabaria da, besteak beste, paperaren industria eta ibai-errenketan kokatutako herrietako isurketak direla eta. Zenbait paper industria itxi eta arazketa sistemak abian jarri zirenetik kutsadura maila nabarmen jaitsi den arren, oraindik ere uraren kalitatea eskas-tzat jotzen da Ordiziatik ibaiaren bokaleraino.

▶ Etorkizunera begira, ordea, Adunan eraikitzeak den Hondakin Uren Araztegiak hainbat herri-tako ur zikinak araztu eta uraren kalitatea hobetzea ahalbidetuko du.

Naturguneak eta fauna.

▶ Herrian-herriko naturgune eta elementu natural zehatzet gain, Ernio-Gazume, Leitzarango Biotopoa eta Atxulondo-Abalotz lirateke Udaltaldeko espazio babestu nabarmenak. Aipatzekoa da EAEko Ibaian eta Erreken Ertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Planak (LAP) espazio hauen baitan garapen diren ibaiertzak Lehenetsunezko Interes Naturalistiko-dun izendatzen dituela.

▶ Udalerriotako faunari dago-

kinez bereziki aipatzekoa da galtzeko arriskuan dagoen bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) agertzen dela arro honetako zenbait ibaiadarretan. Bisoi europarraren kudeaketa Planean Altzolaras errekarren goiburua interes berezikotzat jotzen da.

Nekazaritza.

▶ Udalerriotako landarediaren elementu nagusiak baso landatuak, belardiak eta labore lur atlantikoak dira. Aipatzekoa da EAEko Nekazaritza eta Basogintza Antolatze Lurraldearen Arloko Planean (LAP) Udaltaldeko azalera totalaren (6.785 Ha.) %8a (547 Ha.) Balio Estrategiko Altuko Nekazaritza-abeltzaintza Eremu gisa sailkatzen dela.

▶ Lurralde eskaintako baliabideetan oinarrituz eta naturaren mugak gainditu gabe, mendeetan zehar nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza jarduerak aldaketa mugatu eta mantsoen bitartez sorturiko paisaia, ordea, arriskuan egon gerta-zen ari den bezala, Udaltalde 21 Ernioaldea osatzen duten zazpi udalerrietan ere baserriko jardueraren beherkada nabarmenaren ondorioz.

▶ Zalantzarik gabe, baserriaren beherkadaren oinarria belaualdi berrien erreleborik ezean legoke, hau da, baserri-tarren «zahartzean».

▶ Batetik, arrazoi ekonomikoak leudeke, egungo merkatuan ustiategi txikiak duten lehia-kortasun maila baxua, natur eta giza baldintza onenak dituzten ustiategi konpetitibo-
nek bakarrik dutelarik aurrera jarraitzeko aukera, beren ustiat-
egia industrializatuz, beti ere.

▶ Bestetik, hiriarekiko hurbil-



Egun ez da batere erraza baserri-tik bizimodua ateratzea. 'ANOETAKO BASERRIAK'

tasunak nekazal lurrekiko era-gindako presio espekulatiboa kokatuko litzateke: eremu onen-
en urbanizazio eta industria-
lizazio intentsiboa, etxebizitza
isolatuen fenomeno eta landa
lurrekiko babes falta izango li-
rateke, oro har.

▶ Honela bada, baserri-tar-
kok jatorrizko jarduera alde
batera utzi eta *kalean* sortzen
diren lan aukerak aprobetxa-
tzea erabaki dute, baserri jar-
dueraren presentzia sinboli-
koa eginez —zaletasunagatik
edo etxe inguruak garbi man-
tendu ahal izateko azienda
buru batzuk mantenduz—. Zazpi
udalerrietako ustiategi
gehienetan jabearen dedika-
zioa partziala izatea da joera
honen adierazle.

Paisaia.

▶ Honek guztiak paisaian on-
dorio nabarmenak eragin di-
tzake, luraren erabilera alda-
tzearekin zenbait belardi pinu-
di bihurtuz edo sasiz betez,
mekanizatze zailtasunak di-
tuztenak bereziki, eta jarduera
osagarriek, nekazal-turismoak,
esaterako, jatorrizko jarduerak
ordezkatuz.

▶ Alderdi positiboari so egi-

nez, hala ere, ezin aipatu gabe
utzi Anoetan kokatzen den ne-
kazaritza ekologikoko ustiat-
egia eta Villabonan Agroaldea
ekologikoa sortzeko proiektua.

▶ Aurkako muturrean, berri-
z, mindak genituzke, simaurra-
ren eta hondakin-uren nahas-
keta likidoa, gaur egungo abel-
tzaintzaren arazo nagusietako
bat, bai ingurumenaren ikus-
puntutik, bai ikuspuntu ekono-
mikotik ere.

▶ Orain arte, baserrietan las-
toa jartzen zen animalien az-
pian. Animalien gorutzak eta
pixa lastoak edo irratzak xur-
gatzen zituen, eta horrekin si-
maurra egiten zen. Aldiz, gaur
egun, etxalde handietan ez da
azpirik egiten eta hondakin
guztiak nahasian joaten dira,
likido eran, minda osatuz. Min-
da arazoak abeltzaintzaren in-
dustrializazioarekin sortu dira:
aurrera egin duten abere ustia-
tegiek gero eta buru gehiago
dituzte eta, horren ondorioz,
gero eta hondakin gehiago ere
bai, baina hondakin horiek on-
garri moduan egoki erabiltze-
ko behar den lur-azalera han-
ditu gabe. Halakoetan, inguru-
ko lurrek bereganatu
dezaketena baino kantitate

handiagoak jasotzen dituzte
eta, ondorioz, gainazaleko
nahiz lur azpiko urak nabar-
men kutsatzen dira.

Etorkizuna.

▶ Ingurumenaren kalitatea
hobetu eta baserriaren eta pai-
saiaren mantentzea bermatu-
ko badira, etorkizunera begira
gogor lan egin beharko da, al-
dez aurretik noraino iritsi nahi
den planifikatuz, Administra-
zioaren parte-hartze zuzena
ezinbestekoa izanik.

▶ Ezinbestekoa izango da au-
rrera begira baserri-tan jarraitu
nahi dutenei, gutxi badira ere,
horretarako aukera ematea,
baserri-tarrak ekoizle nahiz ka-
litatezko paisaia baten zaindari
bezala duen balorea gizarte-
aren baitan barneratuz.

▶ Halaber, nekazaritza gunee-
tan sortzen den espekulazioa
desagertzeko hiri jarduerak,
etxebizitzak eta etengabe-
ko eraikuntzak zorrotz kontrola-
tzeko tresneria ezberdinak jo-
rratu beharko dira.

▶ Ur ibilguten kalitatea hobe-
tzeari begira, berri-
z, etorkizu-
nean mindak modu egokian
kudeatzeko alternatibak azter-
tu beharko dira.

hitza

✂

Harpidedunen txokoa

✂

Aisialdi planik ez duzula?
HITZAK aukera paregabea emango dizu

1 Bidaia zoragarri bat Tenerifera 2 lagunentzat
2 Luxuzko otordu berezia Tolosako Zumeta Jatetxean

Ez galdu aukera! Egin zaitetz harpidedun ordaintzaile!

PARTE HARTZEKO:
Maiatzaren 30etik ekainaren 25era argitaratzen diren txoko hauetako bat, zure datuekin bete eta bidali ondoko helbide honetara. **Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza • Araba etorb.5 • TOLOSA**

Ekainaren 26an irabazlearen izena HITZAN ZORTE ON!

Zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea.

1

TENERIFERA BIDAIA

2 lagunentzat astebeteko egonaldia

LAUTREK

bidaia agentzia

korreo kalea, 52 • TOLOSA
Tel.: 943 67 39 99 - 943 67 39 21
Faxa: 943 67 39 12
zure neurriko bidaiak antolatzen ditugu

2

OTORDU EDERRA

2 lagunentzako Tolosako Zumeta jatetxean

Berjaldegi Plaza, 2/g • Tolosa
Tel.: 943 88 28 93

bete zure datuak

Harpidedunaren kodea.....

Izena.....

Abizenak.....

Helbidea.....

.....

Herria.....P.K.....

Telefonoa.....

Pe.lektronikoa.....

GORKA ARANDIA ▶ HITZA PILOTA TXAPELKETAKO DELEGATUA

«lazko maila beretsua egon da»

III. HITZA Pilota Txapelketan epaile lanetan aritu da gazte albizturterra alebinen mailan, Ion Ezeiza herrikidearekin batera



N. URBIZU

NEREA URBIZU

Gorka Arandia albizturterra HITZA Pilota Txapelketako hiru urteetan pilotari txikien epaile izan da, aurretik ere horretan ibiltzen bazen ere. Finalen atarian, 29 urteko gazte honek aurtengo txapelketari buruz aritu da HITZAREKIN.

Nolako maila ikusi duzu aurretan?

Nik alebina bakarrik ikusi ditut eta besteetakoen berdintzua, ona. Dena dela, denetari-ko bikoteak ibili dira; batzuk onak izan dira eta beste batzuk ez hain onak. Aldeak badaude. Alebinen mailako final hori espero al zenuen?

Bikote bat argi ikusten nuen: Otamendi-Jaka, Zazpi-Iturri pilota eskolakoak. Dena dela, bikote on asko atzean geratu dira, merezi zuten asko ez daude finalean. Bi besterik ez dira pasatzen, eta hauek izan dira

MAILA

«Alebinak bakarrik ikusi ditut, baina beste urteetako da: badira oso bikote oso, eta besteak ez hain onak»

aurten. Ia hasieratik askok bagenekien aipatutako bikotea finalean izango zela. Lehengo urtean ere ondo ibili ziren. Beste bikotea Imaz-Erostarbe da, eta hauek ere onak dira, baina ez aurrekoen mailakoak.

Eskola batetik beste batera alde handia al dago?

Hori ezin da jakin; nik alebina bakarrik ikusten ditut eta, gainera, eskola bakoitzak normalean dauzkan pilotaririk onenak bidaltzen ditu. Baina baliteke aldeak egotea.

Pilotalekuak egokiak al dira? Bai, lurra ondo daude, pare-

PILOTA

«Pilotari onak pilota ondo aukeratzen badaki: honen ezaugarrien arabera min handia egin dezakezu»

tak ere bai, eta zaharragoak direnek behar duten pilotalekua erabiltzen dute, tamainaz egokiak, legalak direnak. Albizturko frontoian hauek ezingo lukete jokatu, motza delako.

Txikiek ere pilota hautatzeko aukera izaten al dute?

Bai. Guk lau pilota eskaintzen dizkiegu, eta pixka bat probatu ondoren aukeratu egiten dute. Pilotari onak ondo aukeratzen badaki: asko nabaritzen da hori. Pilotari txarrak ez dio pilotari garrantzi handiegirik ematen, eta oso inportantea da hori. Pilotak dauzkan ezauga-

HITZA TXAPELKETA

«Denetan bezala dirua da arazoa: materiala erosi behar da, eta antolakuntza lana eskatzen du»

rrien arabera modu batean ala bestean min egin dezakezu. Finalean pilota gogorrarekin ibiliko dira.

Txapelketa hau antolatzeak lan handia al du?

Jendea abisatu egin behar da, deiak egin, hainbat pilotalekuan baimenak eskatu... Posible da egitea; baina betikoa: dirua behar da garaikurrentzat, txapelak, pilotak, ordaindu behar zaionari ordaindu...

Hurrengo urtean IV. HITZA Txapelketa?

Bai, dena ondo badao, eta jendea prest badago.

ALBIZTUR ▶

Kultur Astea bukatuta, balantzea egin dute

Ekitaldi desberdinak egon dira, denetan jendeak parte hartuz, baina ez gehiegi



Antzerkiko une batean. E. EZEIZA

N. URBIZU

Maiatzaren 19an eman zioten hasiera Albizturten Kultur Asteari, eta hilaren 11n bukatu zen.

Hitzaldia izan zen lehenik Kultur Etxean, nerabeen eta gurasoen arteko harremanei buruzkoa. Alberto Labaka alkatearen arabera, «jendea puska bildu zen, baina agian gehiago espero genuen».

Hurrengo ekitaldia *Nora doa ero hori* antzerkia izan zen. Hau izan da Kultur Astearen ekitaldien artean arrakastatsuenetakoa: 50 bat lagun bildu ziren Kultur Etxera. Umeen antzerkian ere jendea elkartu zen, eta «gurasoak izan ziren gehienbat».

Bertso ikastaroa Amaia Agirrek eta Aitor Mendiluzek bideratu zuten, hiru ostiralez, baina «12 bat lagun izan ginen; ez du gehiegi mugitu».

Herriko mugak ikusteko hirugarren ibilaldia ere egin zuten. «Txikotako gainetik Ernio aldera joan ginen 20 bat lagun. Hurrengo urtean falta den ibilbidearen zatia egingo dugun», ziurtatu zuen alkateak.

Azken egunean, pilota

Azkenik, hilaren 11n pilota partidak izan ziren, eta besteen artean lehengo astearen profesionaletan debutatu zuen Oteiza ibili zen, Telleria, Mujika —Teltexarean orde—, Zapirain, Renobales eta Bellosoren artean.

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldari laguntzailea. Amasan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetarako. 943 69 12 10.

Tabernaria. Villabonako taberna baterako neska euskalduna behar da, 15:30etik 22:30era. Igandeetan jai. 650 48 79 34.

KULTURA ▶

Biharko musikariak trebatuz

Musika Eskolako Leitzako eta Aresoko ikasleek kontzertua eskaini berri dute

JAIONE ASTIBIA

Atsegin, erakargarria, berri-tzailea eta entzungarria oso; pintzelkada horiek guztiak izan zituen lehengo ostiral ilun-tean Aralar musika eskolako ikasle diren Aresoko eta Leitzako haur eta gazteek eskaini zuten kontzertuak.

4 urtekoetan Haur Hezkuntzako antzerki ukituarekin hasi, bakarka pianoz, gitarraz eta akordeoiz jotako hainbat piezetatik pasatu eta heldue- nek talde instrumentaletan egindako kalitateko erakustaldi- dietara, urtez urte ikasitakoa eta hobetutakoa agertu zuten, zinema aretoa bete jenderen aurrean; txalotzeko ez ezik mu-

sikariekin batera parte hartze- ko prest agertu zen entzulegoa, gainera, txistulariek *Polka* jo- tzerakoan txalo-arristu-oihuz lagunduz.

Musika tresnaka, 80 bat ikasle inguru igo ziren eskena- tokira: *Inguru Haundia* flauti- nez, *Milonga* gitarraz, *The Entertainer* pianoz, perkusioko 12 ikasleen erakustaldia, oso txalotua izan zena...

Eta talde instrumentaletan parte hartzen duten ikasleekin bukatu zuten kontzertua. Goi Zikloko 6 talde agertu ziren. Esate baterako, Extremo Duro- ren *Stanby*, Green Day-ren *American idiot* edota Metalica- ren *Orion* eskaini zituzten. Bes- teak beste, azken doinu hori



Itoitzen *Lau teilatu* jotzen eta kantatzen gitarrak-joleak; kontzertu honetako klasikoa bihurtu da. JAIONE ASTIBIA



Zuhaitz Beloki, Ander Perurena eta Maitane Villabona, *Orfeon negro*, Brasilgo bossa jotzen, arretatsu, gitarra elektrikoaren, akustikoaren eta baxuaren nahasketaz. J. A.



Orripekoa: erdian Uxue Goikoetxea eta Aritz Sagastibeltza, aldeetara Irigoien (ezk.) eta Yague irakasleak; atabala, Jokin Baucis. J. A.

ere ikaragarri txalotua izan zen, modu inbidigarrian jo zu- ten eta, eta baita propinazko

pieza bat eskaini ere. «Ikaraga- rri gustatu zait. Berezia, perku- sio taldearena», zioen entzule

batek. «Hauek nonbait azaldu- ko dira», zioen beste batek az- ken piezaren oihartzunarekin.

ARESO ▶ EUSKAL HERRIKO SOKATIRA TXAPELKETA

Bigarren jardunaldian hirugarren eginda, 9 punturen jabe da Areso

Goiherri Arekin berdin, orokorrean 2. da; Nuarbe eta Gaztedi A, buru

J. ASTIBIA

640 kiloko pisuan asteburu go- gorra izan dute soka-tiralari- egar berri den hau, bi egun ja- rraietan lehiatu baitute Euskal Herriko Txapelketan. Hala, Aresok Gazteluko larunbateko saioan 4. egin bazuen (4 puntu eskuratu zituen), biharamone- an Laukizen 3. egin zuen eta 5

puntu gehitu zizkion bere kon- tu partikularriari.

Saioarekin gustura zeuden orokorrean Areso taldekoak, Mutrikuri, Goiherri Bri eta Gaz- tedi Bri irabazi eta Nuarbere- kin eta Goiherri Arekin berdin bukatu baitzuten; baina egu- neko polemika, Gaztedi A tal- dearekin egindako tiraldietan «jasan behar» izan zuten. Izan

ere, aurreneko tiraldian oso luze joan zena eta bina faltare- kin jarri zirelarik bi taldeak, aresoarren aldera metro erdia baino falta ez zenean, epaileak 3.a adierazi zuen hauen aurka, «gaizki egin zuena, oso nabar- men, gerora beraiek ere onartu ziguten bezala», adierazi zioten HITZARI atzo. Bigarren tiraldian ere faltak aresoarrei ezarri

omen zizkien, «nahiz eta beste aldean lurrean etzanda zeu- den», zehaztu zuten; halako erabakiekin «ez ginen oso kon- forme gelditu. Ez zuten garbi jokatu» zioten, gertatutakoare- kin ezadostasuna azalduz: «Tira- laldi horretan asko zegoen jo- koan; guk irabaziz gero, Gazte- di (A) 2. gelditzen zen eguneko sailkapenean».

Gainerakoan, egindako lana- rekin, eta batez ere kide be- rriengatik, «maila ona erakus- ten» ari direla adierazi zuten. Otermin ibartarra, Sagastibel- tza eta Arbeo (lanerditan Loiar- tek ordezkatu zuen) tira- tzen aritu ziren, Sukuntza, Arraras, Otermin anaiak, P. Ba-

raibar kideekin. Orain 640 kilo- ko txapelketa honek uztailaren 2an izanen du hurrengo saioa, Lesakan.

Bitartean, ordea, asteburu honetan berean, larunbatean, 560 kiloko hasiko dute, Galda- kaon, 17:00etan. Horrela, «pi- suan sartzen lan pixka bat» izanen dutela baieztatu dute Areso taldeak, baina «uztaila- ren bukaerarako prest egotea» espero dute, orduan jokatu- ko baitituzte pisu honetako beste bi saioak. Soka M. Baraibar, Ar- tola, Arbeo, Arraras, Otermin anaiak eta P. Baraibar tiratzaile- lek osatuko dute, honetakoan Nuarbe batekin eginez zor- tzikoa.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



ESKERTZA ▶

PEDRO JOSE
IPARRAGIRRE ALDANONDO

Ekainaren 17an Idiazabalen hil zen **PEDRO JOSE IPARRAGIRRE ALDANONDO** jaunaren sendeen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztiok.

Idiazabal, 2006ko ekainaren 21a

hilberria ▶

Agustin Urdanpilleta Aranburu
(Betelu)

Hire emankortasuna, bizitzeko gogoa, eta mendiz gozatzeko modua beti izango dituk gurekin. Betirarte



Pagoeta Mendizale Elkartea

ZARAUTZ, 2006ko ekainaren 21a



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Sanbartolometako herri antzerkia prestatzeko bilera. 20:00etan, Sendi Ekintzan.
Tolosa. 2006-2007 ikasturtean Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolan ikasteko matrikula epea zabalki hilaren 30era arte, 09:30etik 13:30era.
Tolosa. Tolosako Batasunak deitutako batzarra, egoera politikoaz eta aurrera begirako urratsetaz. 20:00etan, Kultur Etxean.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maite Itsasoren margolanak, Jubilatuen tabernan. Gaur da azken eguna.
Hernalde. Gregorio Lopezen margolanak, Ostatuan ikusgai.
Tolosa. Aterpeak. Miguel Angel Oriberen eskultura erakusketa. Uztailaren 1a arte, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Kultur tailerretako ikasleen erakusketa. Uztailaren 1a arte, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.
Tolosa. Yolanda Artolaren margolanak, Fronton kafetegian.
Zizurkil. Eskultura erakusketa, Olentzon.

MUSIKA

Alegia. Loatzo musika eskolakoen ikasturte amaierako kontzertua. 18:00etan, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepassoa, albisteak, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Irauli uhinak*.
21:00-22:00. *Bide okerretik*.
22:00-23:00. *Street noise*.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Bi eskualdeetako txirrindulariak sasoiko Quebrantahuesos proban

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶ Larunbatean jokatu zen 16. Quebrantahuesos txirrindularitza proba. Sabiñanigotik Sabinanigora (Huescako Pirinioak, Espainia). Herrialde askotako milaka txirrindulari erakartzen ditu urtero proba ospetsu honek —aurten ia 8.000 izan dira—, eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko ordezkariak ere ez dute hutsik egin. Sasoiko aritu dira, gainera. Adibidez, Tolosa

CFko Virginia Lotinak irabazi zuen emakumezkoetan (6:40:58). Aurpegi ezagunak ere ikusi ziren; besteak beste, Abraham Olano txirrindulari ohi anoetarrek ere korritu zuen Quebrantahuesos. Argazkian, eskualdeko hainbat txirrindulari, Portalet 28 kilometrotako mendatea igotzen. Sailkapen osoa ikusgai dago www.quebrantahuesos.com webgunean. LEIRE MONTES

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa